



Itsas Langileen Araubidean Lan Autonomoak

IZAN DITUEN ERREFORMAK



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE EMPLEO
Y SEGURIDAD SOCIAL

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA





Langile autonomo guztiei aplikatzekoak diren neurriak	02
Benetan altan egondako egunengatiko ordainketa	03
Urteko alta eta baja kopuruaren mugak	04
Alta eskatzeko epearen aldaketa	04
Kuoten ordainketa helbideratzeko betebeharra	04
Autonomo-kuotaren ordainketan izandako atzerapenengatiko errekarguak	05
In itinere lan-istripuaren aitortza	05
Pentsioa/lan autonomoa bateratzea	05
 Lehen kotizazio-taldeko autónomos langile autonomoei soilik aplikatzekoak diren neurriak	 06
Kotizazio-oinarria aldatzeko lau epe	06
Gehiegi kotizatzeagatiko itzulketak, jarduera-aniztasuneko egoerari dagozkionak	06
Amatasun- nahiz aitatasun-prestazioak kalkulatzeko formula berria	07
Gizarte Segurantzaren Alorreko Pizgarriak	08

6/2017 LEGEA, URRIAREN 24KOA, LAN AUTONOMOAREN
PRESAKO ERREFORMENA, ESTATUKO ALDIZKARI OFIZIALEAN
(BOE) 2017KO URRIAREN 25EAN ARGITARATUA.

NEURRIETAKO BATZUK BOEN ARGITARATU ETA HURRENGO
EGUNEAN JARRI DIRA INDARREAN; BESTE NEURRI
GARRANTZITSU BATZUK, BERRIZ, EZ DIRA INDARREAN JARRIKO
2018KO URTARRILERA EDO MARTXORA ARTE.

LANGILE AUTONOMO GUZTIEI APLIKATZEKOAK DIREN NEURRIAK

Erreformak aldaketa garrantzitsuak proposatzen ditu, kotizazio-sistema autonomoen sarrera errealei egokitzeko xedez. Zehazki, neurri hauek dira —2018ko urtarrilean indarrean sartuak—:



Benetan altan egondako egunengatiko ordainketa

Orain arte bezala hilabete osoari dagokion autonomo-kuota ordaindu beharrean, altaren eragin-datatik baja ematen duten egunera arte soilik kotizatuko dute, Araubide Berzian alta/baja eman duten urteko lehen hiru aldietan.

Kasu horietan, altan egondako egunei dagokien hileko kuotaren zatia hartuko da kontuan ordainketa zehazteko. Ondorio horretarako, hileko kuota finkoa 30ez zatituko da.

Hilabete osoari dagokion ordainketa egin bada, eta baja lehenago gertatu bada, ofiziozko itzulketa egingo da, ordainketa egin den hilabetetik aurrera bi hilabeteko epean.



Urteko alta eta baja kopuruaren mugak

Urte natural bakoitzaren barruan, alta eta baja gehienez hiru aldiz emateko aukera izango dute autonomoek, eta altaren datatik eta/edo bajaren datara arteko aldiari dagokion kuotaren ordainketa proportzionala egin beharko dute, eta ez da hileko kuota osoa hartuko kontuan. Gizarte Segurantzaren laugarren alta edo laugarren baja ematen denetik aurrera, eraginak, hurrenez hurren, jarduera hasi den hilabete naturalaren lehen egunetik eta jarduera amaitu den hilabete naturalaren azken egunetik izango dira.

Alta eskatzeko epearen aldaketa

Jarduera hasi eta hurrengo 30 egun naturaleko epea ezeztzen da, eta alta jarduera hasi aurretik eskatzeko betebeharra ezartzen da.

Kuoten ordainketa helbideratzeko betebeharra

Banku-helbideratzearen sistemaren bidez egingo da, eta, horretarako, Gizarte Segurantzaren bulego biltzaile gisa jarduteko baimena duen finantza-erakunde batean eduki beharko da kontua irekita.

Kuoten ordainketa helbideratuta dagoen kontuaren aldaketak jakinarazten den hil berean izango ditu ondorioak, jakinarazpena hilaren 1aren eta 10aren artean eginez gero, eta jakinarazi ondoko hiletik aurrera, jakinarazpena hilaren 11ren eta azken egunaren artean eginez gero.



Autonomo-kuotaren ordainketa izandako atzerapenengatiko errekarquak

Gizarte Segurantzari kuotaren ordainketa atzerapenez egi-teagatiko zehapena, % 20ko errekarqua zuena, % 10eko errekarqura murritzten da, zorra ordainketa egiteko epea amaitu eta hurrengo hilabete naturalean ordaintzen bada.

In itinere lan-istripuaren aitortza

Halakotzat hartzen da jarduera ekonomikoa egiten den edo zerbitzu profesionala ematen den lekura joatean edo handik itzultzean gertatzen den istripua, eta, ondorio horietarako, jarduera egiten den lekua hau izango da: langile autonomoak bere jarduera egiteko erabili ohi duen establezimendua, baldin eta bere etxebizitza ez bada eta, zerga-ondorioetarako, jarduera ekonomikoari lotutako lokal, pabiloi edo bulego gisa deklaratu duena bada.

Pentsioa/lan autonomia bateratzea

2017ko urriaren 26tik aurrera, erretirodunak jarduera bat egiten badu bere kontura eta langile bat kontratatuta duela egiaztatzen badu, pentsioaren % 100 jaso ahal izango du. Orain arte, egoera horretan zeuden autonomoek prestazioaren % 50 soilik jasotzen zuten.



LEHEN KOTIZAZIO-TALDEKO LANGILE AUTONOMOEI SOILIK APLIKATZEKOAK DIREN NEURRIAK

Kotizazio-oinarria aldatzeko lau epe

Bitik laura igo dira urtean egin daitezkeen kotizazio-oinarriaren aldaketak, eta honako datetan izango dute eragina:

- ▶ Apirilaren 1etik aurrera, eskabidea urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean egin bada.
- ▶ Uztailaren 1etik aurrera, eskabidea apirilaren 1etik ekainaren 30era bitartean egin bada.
- ▶ Urriaren 1etik aurrera, eskabidea uztailaren 1etik irailaren 30era bitartean egin bada.
- ▶ Hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera, eskabidea urriaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egin bada.

Gehiegi kotizatzeagatiko itzulketak, jarduera-aniztasuneko egoerari dagozkionak

Orain arte, jarduera-aniztasuna zuten autonomoek, beren kotizazioak Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako zenbatekoa gainditzen bazuen, eskubidea zuten kotizazioaren gaindikinarekin % 50 itzul ziezaieten eskatzeko, Araubide Berezian ordaindutako kuoten % 50aren gehieneko mugarekin. Alabaina, 2017ko urriaren 26an indarrean jarritako erreforman xedatzen denez, interesdunak bera-riaz eskatu gabe egingo da itzulketa, ofizioz, hurrengo ekitaldiko maiatzaren 1a baino lehen.

Lehen aldiz Araubidean alta eman duten autonomoek, jarduera-aniztasunean hasi badira lanean, kotizazio-oinarri hauen artean hauta dezakete:

- ▶ Lehen 18 hilabeteetan, gutxieneko oinarriaren % 50en eta gehieneko oinarriaren artekoa.
- ▶ Hurrengo 18 hilabeteetan, gutxieneko oinarriaren % 75en eta gehieneko oinarriaren artekoa.

Amatasun- nahiz aitatasun-prestazioak kalkulatzeko formula berria

2018ko martxoaren 1etik aurrera, kalkulua egiteko, jaiotza-zen, adopzioaren edo familia-harreraren aurreko 6 hilabeteetako kotizazio-oinarriak hartuko dira kontuan, aurreko hilabeteko oinarria kontuan hartu beharrean.



**GIZARTE
SEGURANTZAREN
ALORREKO
PIZGARRIAK**



**Itsas Langileen Araubide
Bereziko Lehen Taldeko Norberaren
Konturako Langileak**

Egoera

Hasierako alta izatea, edota Araubide Berezian alta emandako datatik zenbatuta aurreko 2 urteetan alta-egoeran ez egon izana (edo 3, aurreko aldiren batean onuradun izan badira)

Pizgarriak

Edozein adin

12 hilabetez:

Gutxieneko oinarria: 50€/hil

Gutxienekotik gorako oinarria: % 80ko murrizketa

Hurrengo 12 hilabeteetan:

a) % 50eko murrizketa, hurrengo 6 hilabeteetan

b) % 30eko murrizketa, hurrengo 3 hilabeteetan

c) % 30eko hobaria, hurrengo 3 hilabeteetan

Iraupena: 24 hilabete | Indarraldia: 2018/01/01

Pizgarriak

30 urtetik beherako gizonak
eta 35 urtetik beherako
emakumeak

Beste 12 hilabetez *:

% 30eko hobaria

Iraupena: 36 hilabete | Indarraldia: 2018/01/01

(*) Edozein adinetarako ezarritako pizgarri gehigarria.

Pizgarriak

≥ % 33ko desgaitasun-maila,
genero-indarkeriaren eta
terrorismoaren biktimak

12 hilabetez:

Gutxieneko oinarria: 50€/hil

Gutxienekotik gorako oinarria: % 80ko
murrizketa

Hurrengo 48 hilabeteetan:

% 50eko hobaria, hurrengo 48 hilabeteetan

Iraupena: 5 urte | Indarraldia: 2018/01/01

Egoera

Langile autonomoak kontratu mugagabearekin kontratatutako ahaideak.

Pizgarriak

Ezkontidea, aurreko eta ondorengo ahaideak eta bigarren mailarainoko odol nahiz kideetasun bidezko ahaideak

Enpresak kontingentzia arruntengatik egiten duen ekarpenaren % 100eko hobaria.

Eskakizunak:

- Lan-kontraturik ez azkendu izana, kontratazioaren aurreko 12 hilabeteetan.
- Enplegu-mailari eutsi izana, kontratazioaren ondorengo 6 hilabeteetan.

Iraupena: 12 hilabete | Indarraldia: 2017/10/26



Egoera

Amatasuna, adopzioa, adopzio helburuetarako zaintza, harrera edo tutoretza dela-eta lan-jarduera utzi eta hurrengo 2 urteetan lanean berriro hasi diren emakumeak.

Pizgarriak

12 hilabetez:

Gutxieneko oinarria: 50€/hil

Gutxienekotik gorako oinarria: % 80ko hobaria

Iraupena: 12 hilabete | Indarraldia: 2017/10/26

Egoera

Lan- eta familia-bizitza uztartzea,

kontratazioari eragiten diola, kasu hauetan:

- Bere kargura dituen 12 urtetik beherako adingabeak zaintzea.
- Bere kargura izatea bigarren mailarainoko ahaide bat, mendetasun-egoeran dagoena, garun-paralisia duena edo buruko gaixotasuna duena eta % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duena, edota % 65eko edo gehiagoko desgaitasun fisikoa edo sensoriala duena.

Pizgarriak

Langilearen aurreko 12 hilabeteetako batez besteko oinarriari gutxieneko tasa aplikatuzetik eratortzen den kontingentzia arruntengatiko kuotaren % 100eko hobaria.

Iraupena: 12 hilabete | Indarraldia: 2017/10/26

Egoera

Langile autonomoen laguntzaile diren ahaideen alta berriak.

Hasierako alta izatea, edo altaren datatik zenbatzen hasita aurreko bost urteetan alta-egoeran egon ez izana.

Pizgarriak

Hobaria, gutxieneko oinarriari dagokion tasa aplikatzetik eratortzen den kuotaren gain:

- % 50eko hobaria, lehen 18 hilabeteetan.
- % 25eko hobaria, hurrengo 6 hilabeteetan.

Iraupena: 24 hilabete | Indarraldia: 2017/10/26


Egoera

Amatasuna, aitasuna, adopzioa, adopzio helburuetarako zaintza, harrera, haurdunaldiko arriskua edo edoskitzaroko arriskua dela-eta atsedenera egoeran dauden langileak.

Pizgarriak

Langilearen aurreko 12 hilabeteetako batez besteko oinarriari dagokion tasa aplikatzetik eratortzen den autonomo kuotaren % 100eko hobaria.

Iraupena: Atsedenerako aldia | Indarraldia: 2017/10/26





Edizioa eta argitalpena
Itsasoko Gizarte Institutua

Diseinua
Durán+Fraile

NIPO Papel
273-18-022-X

NIPO Web
273-18-023-5

Depósito Legal
M-18866-2018

